

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

NAVARIDASKO UDALA

Hasierako onarpena ematea Navaridasko 7. poligonoko 125 lurzatian nekazaritza pabilioi bat ezartzeko plan bereziari eta haren ingurumen azterlan estrategikoari (IAzE)

Behin hasierako onarpena emanik, udalbatzak 2016ko ekainaren 6an egindako ohiko bilkuran onartutako erabakiaren bidez, Navaridas udalerriko "La Laguna" inguruan 7. poligonoko 125 lurzatiko landa finka batean nekazaritzako pabilioi bat ezartzeko plan bereziari eta haren ingurumen azterlan estrategikoari (IAzE), jendaurrean jartzen da espedientea berrogeita bost egun balioduneko epe batean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik kontatzen hasita.

Epe horretan, interesa duen orok udal bulegoetan aztertu ahal izango du espedientea, bai eta udalaren web orrian ere, esteka honetan, <http://ayuntamientodenavaridas.com/index.php/es/inicio/39-noticias/noticias-cast/328-expo-publica-plan-especial> egoki deritzen alegazioak aurkezteko.

Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta beraren aurka ezingo da aurkeztu administrazio errekurtsorik, izapide hutsezko egintza delako, hala agintzen baitu Herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkideari buruzko Legeak 107.1 artikuluan (30/1992 Legea, azaroaren 26koa).

Navaridas, 2016ko abuztuaren 5a

Alkate-lehendakaria

MIGUEL ÁNGEL FERNÁNDEZ GONZÁLEZ